

Jakingarriak aldizkariak kulturartekotasuna du aztergai

2006/06/13

Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Dokumentazio Zentroak "Jakingarriak" aldizkariaren azken alea kaleratu du, 58.a, ikasturte honi dagokion hirugarrena.

Aurrekoak bezala, EAEko ikastetxe guztietan banatuko da, eta Nafarroako eta Iparraldeko ikastoletan. 1.200 ale guztira.

Jakingarriak

KULTURARTEKOTASUNA
ESKOLAN

Kulturartekotasuna eskolan

Ale honen gai nagusia da Kulturartekotasuna Eskolan, eta **Amelia Barquin** irakasleak koordinatu du. Sei artikuluk lantzen dute gai hori.

Euskal gizartera estatu espainiarraren kanpotik iritsitako etorkinen kopuruak gora egin du nabarmen azken urteotan, eta euskal eskola konturatzen hasi da ez dagoela begiak ixterik gertakari horren aurrean.

- "Kultur aniztasuna hementxe dago", dio **Amelia Barquin** irakasleak, *"eta ezinbestekoa da eskuhartzea, baldin eta hori kulturartekotasun bihurtzea nahi baldin badugu, eta etorri berriak euskal herritar nahi baldin baditugu, aukera eta eskubide guztiekin"*.
- **Elizabeth Coelhok** hainbat estrategia azaltzen ditu etorri berrientzat ingurune adeitsua sortzeko kultur aniztasunean.
- **Tusta Aguilarek** eta **Mariana Ruiz de Loberak** idatzitako artikuluan ez da falta gogoetarik etorkinak nola tratatu.
- Beste artikulua batean, **Amelia Barquinek** berak, **Julia Barnesek** eta **Karme Perezek** elkarbizitza eta gatazka aztertzen dute, kasu bat azaltzearekin batera.
- **Amelia Barquinek**, bestetik, aztertzen ditu giltzarriak etorkinen seme-alaben integrazioarako. Gai korapilatsua da hau, eta horrela azaltzen dute beste artikulua batean **Jon Lopez Armendarizek** eta **Joseba Ibarrek**.

Betiko moduan, **Jakingarriak** aldizkariaren ale honek ere liburu berrien berri ematen du, hainbat artikulua aipagarri dakartza, eta zenbait aipu jasotzen du, irakaskuntzaren ingurukoak gehienak.